



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BEIZAMAKO OSTATU ZAHARRA TABERNA-JATETXEAREN ZERBITZU  
PUBLIKOAREN USTIAKUNTZA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA  
EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.**

**I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

**1.- HELBURUA ETA ERREJIMEN JURIDIKOA**

1.1.- Beizamako ostatu-zaharrak, ostalaritza ekipamendua izateaz gain, zerbitzu publiko izaera du. Zentzu honetan, ostatuak, alde batetik, nagusiki herritarren zerbitzuarekin lotura du, eta bestetik, Udalak sustaturiko jardueren azpiegitura lagungarria izango da; Udalak hala erabakiz gero.

Kontratuak, jardunbide negoziatuaren bidez Beizamako Osatu Zaharra Taberna-Jatetxearen ustiakuntzarako araubidea ematea du helburutzat.

Halaber, erabilpenari atxikiriko Udaletzeko ondorengo elementu hauek:

1. Beheko solairuan:

- Sukaldea, tresneria eta ekipoa.
- Bi jangela
- Taberna
- Komunak
- Trasteroa
- Telefono gela
- Erdisotoko lokala.

2. Goiko solairuan:

- Etxebizitza (aukeran).

1.2.- Kontratazio honek kontratu berezi izaera dauka, enpresariak kudeaketa lanetan arriskuak bere gain hartu beharko dituelarik.

1.3.- Baldintza-agiri honetan oinarritutako kontratuak izaera administratiboa izango du, eta kontratuan ageri ez den guztirako Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zehaztutakoak aplikatuko dira. Bestaldetik, 1955eko ekainaren 17ko Toki-Korporazioetako Zerbitzuak arautzen dituen Erregelamendua aplikagarria izango da, emakida administratiboari dagokion ataletan.

1.4.- Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira.

1.5.- Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko



BEIZAMA KO UDALA  
(GIPUZKOA)

ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

## 2. EMAKIDAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena 4 urtekoa izango da, izenpetzen biharamunetik kontatzen hasita, eta ondoren, urtez urte luzatu ahal izango da, beste lau urte gehiago. Luzapena eskatuko da kontratua bukatu baino gutxienez BI HILABETE lehenago eta hitzartutako baldintzetan emango da, kanona eguneratzearena ezik.

Bi aldetakoren batek kontratua ez luzatzea erabakiko balu, kontratua bukatu baino hiru hilabete lehenago beste aldeari jakinarazi beharko dio. Kontratatistak zerbitzuaren ustiakuntza ez luzatzea erabakiko balu, jarraitu beharko du esleipen berribat gauzatu arte, udalak hala erabakiko balu.

Halaber, kontratuaren indarraldia amaitu aurretik, kontratatistak zerbitzu publikoaren ustiakuntza uztea erabakiko balu, honako ondorio hauek izango dira, ezinbesteko kasuak ezik:

- Kontratatistak, kontratuaren alde aurretiko amaiera eskatu behar dio udalari, gutxienez, hiru hilabeteko aurrerapenarekin.
- Aldez aurretiko amaiera udalak onartuko balu, kontratatistak, behin-betiko bermea galduko du
- Horretaz gain, eta penalizazio gisa, kontratatistak, kontratua amaitzeko falta den urte bakoitzetik HILABETE BATEKO kanona ordaindu behar dio udalari .
- Azkenik, kontratatistak jarraitu beharko du zerbitzu publikoaren ustiakuntzan esleipen berri bat gauzatu arte, Beizamako udalak hala erabakiko balu.

## 3. KONTRATUAREN KANONA:

Eskatzen den gutxieneko kanona ondoren zehaztutakoa da, eskaintzaileek hobetu ditzaketelarik:

- Taberna: 150.-€/hilab + BEZ
- Taberna eta etxebizitza: 200.-€/hilab + BEZ

Kanon hau hiru hilabetero, epe honen amaieran, ordaindu beharko da Udal Diruzaintzan.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Kanona urtero errebisatuko da, urtarrilaren 1ean, dagokien erakunde ofizialak argitaratzen duten E.A.E.ko bizitzaren hazkunde indizea, KPIren arabera.

#### 4. ESLEIPENDUNAK ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK

Eskaintza honi lotutako iragarkien gastuak ordainduko ditu esleipendunak, baita dagozkion zergak, tasak eta gastuak ere.

Gainera, esleipenean sortzen diren edozein kontsumo moten kostua bere gain hartuko du (elektrizitatea, gasa, ura, e.a.). Halaber, urtero, kontratuaren indarraldian zehar, ondasunen aseguru-poliza hitzartu beharko du kontratistak.

#### 5. PROZEDURA ETA ESKAINTZAILEEN ESKURA DAGOEN DOKUMENTAZIOA.

5.1. Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da.

5.2. Baldintza zehatzen agiria jaso ahal izango dute eskaintzaileek, bai paper formatuan, bai formatu informatikoan.

Gainera, eskaintza honen espedientea, baldintzak eta gainerako elementuak Udalaren bulego orokorrean aztertu ahal izango dira asteartetik ostirala arte, 9:00 – 14:00 bitartean edo Udaleko web orrian [www.beizama.eus](http://www.beizama.eus)

#### 6. GAITASUNA ETA KAUDIMEN FINANTZARIOA, EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA

6.1. Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 7. klausulan ezarritakoak izango dira.

6.2. Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez parte hartu ahal izango dute. Pertsona juridikoko ordezkari gisa bertako batek parte hartzen badu, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko du. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

6.3. Enpresaburuek, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

#### 7. PROPOSAMENEN EDUKIAK

7.1. Proposamenak aurkeztuz gero eskaintzaileak baldintza agiri honetako eta kontratazioko gainerako dokumentuetako klausulak onartzen dituela onartuko da,



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

aurkeztutako datu guztiak zuzenak direnaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta eskaintzaren helburu diren prestazioak kontratatzeke eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela onartuko da.

7.2. Eskaintzak gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu daitezke.

7.3. Eskaintza honetan parte hartzeko, proposizioak eskaintzaren iragarkian zehaztutako epean bi kartazal itxi (A eta B) aurkeztu beharko ditu, jarraian adieraziko den tokian, eta kartazal bakoitzean beheago zehaztutako dokumentuak aurkeztuko ditu. Kartazal bakoitzean honakoak adierazi behar dira argi eta garbi: lehiatuko duen kontratua identifikatzeko datuak; pertsona fisiko edo juridikoaren izena; proposamena sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta zein izaerarekin sinatzen duen. Kartazalak itxita aurkeztuko dira nahitaez, eskaintzaileak edo honen ordezkariak sinatuta.

Kartazalak aurkezteko moduak:

- Eskura, Beizamako Udaleko Erregistroan, Herriko Plaza z/g, 20739. (tel.: 943816338).
- Posta ziurtatuaren bidez.

Postaz bidali eta ezarritako epeaz kanpo jaso diren proposamenak onartuko dira, baldin eta eskaintzaileak modu sinesgarrian frogatzen badu Korreosen bidalitako data eta ordua, eta Beizamako Udalari jakinarazi badio, 943-8891 93 zenbakira faxa bidalita, eskaintza bidali izana. Fax hori gehienez ere eskaintzak aurkezteko azken egunean bidali ahal izango da, 14:00ak baino lehen. Bi eskakizun horiek betetzen ez badira (Korreosen zein data eta orduan bidali den behar bezala ziurtatzea eta proposamena postaz bidali dela faxez jakinaraztea), aipatutako epea iragandakoan kontratazio-organok jasotzen dituen proposamenak ez dira onartuko.

**7.4. "A" kartazala: Kontratatzeke gaitasuna eta kaudimena**

Dokumentu hauek jasoko dira:

- *A kartazalean sartu diren dokumentuen indizea adierazita duen orria.*
- *Enpresaren nortasuna ziurtatzen daten dokumentuak:*

"A" kartazalak "KONTRATATZEKE GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburua izango du eta honako dokumentuak sartuko dira bertan:

- a) Parte-hartzailearen edo honen ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritu ra aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo funtzio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide-edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Edo zinpeko adierazpena edo ziurtagiria aurkeztuko dute, aplikatzekoak diren Europako xedapenekin bat etorriz.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, horiek beterik dituela betebeharrak frogatzeko.

Baldintza hauek derrigorrezkoak dira kontraturako eta horiek ez betetzea kontratua amaituzat jotzeko arrazoi nahikoa izan daiteke 9/2017 legearen 39.1a artikuluan xedatzen den moduan.

d) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresabatasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatzea ahal izateko.

e) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

*- Enpresaren gaitasun finantzarioa, ekonomikoa eta teknikoa ziurtatzen daten dokumentuak.*

Jarraian zehaztutako dokumentu guztiguztiak aurkeztuko dira:

a) Finantza-erakunde baten txostena, enpresa eskaintzailearen finantza-egoera osasuntsua dela adierazten duena, finantza-merkatuko ohiko praktiken bidez eskaintzaileak egokituz jotzen dituen inbertsioak (proiektuan zehaztutako baldintza eta epeetan) egiteko finantzaketa nahikoa lortzeko adinakoa.

b) Pertsona juridikoen kasuan, eskaintzailearen edo taldea osatzen duten eskaintzaile bakoitzaren urteko kontuak aurkeztuko dira, azken hiru urteetakoak. Behar bezala onartu eta inskribatuta egon beharko dute eta hiru ekitaldi horietako osoko emaitza eman beharko dute.

Elkarte-talde bateko pertsona juridiko gailenenak badira eskaintzaileak, taldean sartutako elkartekideak ere kontuan hartu ahal izango dira pertsona juridiko



BEIZAMA KO UDALA  
(GIPUZKOA)

gailenaren kaudimen finantzarioa, ekonomikoa, teknikoa eta profesionala ziurtatzeko, beti ere pertsona juridiko horiek kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren elkarteko baliabideak eskuratzeko eta erabiltzeko askatasun osoa dutela ziurtatzen badute.

**7.5.- "B" kartazala: proposamena.**

Dokumentu hauek jaso beharko ditu:

- **Dokumentazio teknikoa:** Negoziazio-irizpideak jasotzendituen txostena, 8. klausulan xedaturiko irizpideak kontutan hartuko dituen

**DOKUMENTUAK AURKEZTEKO OHARRAK:**

7.6.1.- Eskatutako dokumentuen originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzaileek.

7.6.2.- Esleipena gauzatu aurretik nahiz gero, eta kontratua gauzatzen den bitartean, Administrazioak "A" kartazaleko dokumentuak egiaztatu ahal izango ditu, eta enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak okerrak edo gezurrezkoak izatea kontratua bertan behera uzteko arrazoi izan daiteke, kontratatzaileak bere betebeharrak bete ez izanagatik. Kasu horretan, osatutako behin betiko bermea galduko litzateke.

7.6.3.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitaturik dituenaren ziurtagiriaren balioa sei hilekoa izango da, igorri diren egunetik hasita. Kontratua esleitu aurretik iraungi badira, esleipenduntzat hautatutako eskaintzaileak ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko du.

**8. PROPOSAMENAK IREKITZEA**

8.1.- Proposamenak aztertzea.

Lehenengo A) kartazalean behar bezala eta epearen barruan aurkeztutako dokumentuak balioetsiko ditu Kontratazio Mahaiak, ekitaldi publikoan. Aurkeztutako dokumentazioan Mahaiak akats materialak antzemango balitu, ekitaldi publikora bertaratu diren interesdunei ahoz jakinaraziko zaie, eta telefonoz, posta elektronikoz edota faxez ere jakinaraziko zaie. Gehienez hiru eguneko epea emango zaio eskaintzaileari akatsa zuzentzeko.

8.2.- Gero, saio berean, eskaintzaileek egindako proposamenak (B kartazala) balioetsiko ditu Mahaiak, jarraian handienetik txikienerako ordenan adierazi djren **negoziatzeko irizpideen** arabera, eta kontratazio-organoari proposamenik egokiena azalduko djo. Proposamena azaldu aurretik, kontratazio-mahaiak kontratuaren xedearekin lotura duten eta beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

NEGOZIAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
Ordutegiaren proposamena	5 PUNTU
Proposamen ekonomikoa (zehaztuta)	5 PUNTU
Euskera ezagutza	15 PUNTU
Herrirako ekintzen antolaketa	5 PUNTU
Sukaldeko eskaintza	10 PUNTU
Herri txikitan ostalaritzan izandako esperientzia (zehaztu non, zereginak, denbora, etab.)	15 PUNTU
Taldearen osaketa	10 PUNTU

GUZTIRA 65 PUNTU

8.3.- Kontratazio-Mahaiak elkarrizketatu ahal izango ditu aurkezturiko lehiatzaileak, aurkezturiko proposamenak aztertu eta kontratuaren terminoak negoziatu ahal izateko.

#### 9. KONTRATAZIO MAHAIAREN OSAERA

#### 9. COMPOSICIÓN DE LA MESA DE CONTRATACIÓN.

Behean adierazitako kideek osatuko dute kontratazio-mahaia:

Presidentea: Alkatea edo bere ordezkari izendatzen duen beste zinegotzi bat.

Batzordekidea: Udalbatzako Zinegotzi bat.

Batzordekidea: Udalbatzako Zinegotzia

Batzordekidea: Udal Arkitektoa

Idazkaria: Udalbatzako idazkaria.

#### 10. KONTRATUAREN ESLEIPENA

10.1.- Udalbatza osoa izango da esleipen-organoa.

10.2.- Dokumentazio osoa balioetsi eta egokitzat jo diren txostenak jaso ondoren, Kontratazio Mahaiak Udalbatzari igorriko dio behin-behineko esleipen-proposamena, eta Udalbatzan behin-behineko esleipena adostuko da.

Eskaintzaileei jakinaraziko zaie behin-behineko esleipenerako akordioa, eta dagokion legezko iragarpenak egingo dira.

10.3.- Behin betiko esleipena automatikoki gauzatuko da, behin-behineko esleipena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen de egunetik 15 lanegun iragan direnean, eta beti ere epe horren barruan esleipendunak dokumentu hauek aurkeztu baditu:



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitaturik dituela ziurtatzen duten dokumentuak.
- Baldintza-agiri honetan eskatutako gainerako dokumentu guztiak.
- Aseguru-poliza, baldintza-plegu honetan araututakoaren arabera.
- Behin betiko bermea (3.000.-€) osatua izanaren ziurtagiria.

10.4.- Administrazioak proposamen onuragarrienari kontratua esleitzeko ahalmena izango du, baldintza-agiri honetako irizpideak aplikatuta eta horien haztapenaren arabera, baina lehiaketa esleitu gabe uzteko ahalmena ere badu, kasu guztietan esleipenerako irizpideetan oinarritutako arrazoiak emanez.

## 11. KONTRATUA GAUZATZEA

11.1- Kontratua administrazio dokumentuan gauzatuko da 10 laneguneko epean, behin betiko esleipena jakinarazi zen egunaren biharamunetik hasita.

11.2- Esleipendunaren erruagatik kontratua epe horren barruan formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, eta hala badagokio, eratu den behin-behineko bermeaz jabetuko da.

11.3.- Kontratua sinatu eta hilabete bateko epean, kontratistak aurkeztu beharko dio udalari proposatutako prezioen zerrenda, azken honek onar dezala.

## 12. BERMEAK

a) Behin-behineko bermea ez da aurkeztuko.

b) Behin betikoa: Kontratuaren behin-behineko esleipendunak, hartutako betebeharrak beteko direla bermatzeko, 3.000.-€ko bermea eratu beharko du. Berme hori eratzeko epea hamabost lanegunekoa izango da, behin-behineko esleipena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan zehaztutako moduetan eratu ahal izango da.

Bermea osorik edo zati batean itzultzea baldintza-agiri hauetako 15.4. klausulan zehaztutako moduan egingo da, SPKLaren 111. artikuluan oinarrituta, berme-epea iraungi eta esleipendunak kontratuagatik dagozkion betebeharrak guztiak bete dituenean.

## 13. BALDINTZAK BETE EZ IZANAGATIK EZARRIKO DIREN ZIGORRAK:

Administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen agiri hauetan zehaztutako betebeharrak bete ez izanagatik zigorrak izango ditu enpresa esleipendunak, eta Klausula honetan xedatuko dira zigor horiek, eragin diren kalte-galeren ordaina emateko beharraz gainera.





BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Kontratazio-organoak ezarriko du zigor erregimen hori, baldintzak ez betetzearen arrazoiak kontratua eteteko edo bahitura egiteko nahikoak izan ala ez.

13.1 - Baldintzak ez betetzearen mailak

Zigor-erregimen honetarako, esleipendunak egindako hutsegiteak larriak edo arinak izan daitezke.

- *Oso larriak*

- Bi hutsegite larri egitea
- Justifikaziorik eta udalaren baimenik gabe zerbitzurik ez ematea edo ordutegirik ez errepetatzea bost egunetan hilabete batean (osorik zein zatiturik), edo zazpi egunetan hiru hilabeteko epean
- Kontratuaren xedea diren ondasunetan kalteak eragitea, dolu edo arduragabekeriaren ondorioz.
- Zerbitzuaren erabiltzaileak edo udaleko ordezkari eta pertsonala eraso edo larriki errespetua galtzea
- Zerbitzuarekiko utzikeri larria

- *Larriak*

- Esleitzeko garaian erabakitzaileak izan diren eskaintzaren konpromisoak ez betetzea.
- Baldintza-agiri honetan xedatutako zerbitzuak arrazoirik gabe aldatu izana.
- Instalazioei baimendu gabeko erabilera ematea.
- Baimendu gabeko lanak edota aldaketak egitea.
- Edozein modalitate edo titulupean kontratatutako zerbitzuaren lagapena, azpilokapena edo eskualdatzea, guztizkoa edo partziala.
- Kontratuko funtsezko obligazioen urrapena suposatuko lukeen bestelako konplimendu eza, udalaren garbiketa barne.
- Udalak agindutako eta honen iritziz beharrezkoak diren eraikuntzaren erabilerari dagokion aldaketa edo hobekuntzaren inguruko konplimendu eza.
- Plegu honetan zehaztutako zerbitzugintzan aldaketak justifikatu gabeko zioengatik.
- Lanak ustiatzen hasteko baldintza honetan ezarri den epea ez betetzea.
- Langileekiko lan-betebeharrak edo betebehar sozialak ez betetzea.
- Urte betean lau hutsegite arin egin
- Justifikaziorik gabe zerbitzurik ez ematea edo ordutegia ez errespetatzea bi egunetan hilabete batean (osorik zein zatiturik), edo lau egunetan hiru hilabeteko epean
- Zerbitzua emango duen pertsonala aldatzea udalaren aurretiazko baimenik gabe.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- Udalak eskaturiko zerbitzuak eta lankidetzari uko egitea, edo dagokion lehentasuna ez ematea.

*-Arinak*

- Administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen agiriotan zehaztutako bestelako betebeharrak ez betetzeagatiko gainerako hutsegiteak arintzat joko dira, baita indarrean dagoen legerian larritzat jo ez diren kasuetan ere.

13.2.- Zigorrak

1. Esleipendunaren hutsegiteak honela zigortuko dira:

- a. Hutsegite arinek gehienez 6.000 euroko isuna izango dute.
- b. Hutsegite larriek 6.001 euro eta 50.000 euro bitarteko isuna izango dute
- c. Hutsegite oso larriek, kontratuaren suntsiarazpena, bermearen galera eta sorturiko kalteengatiko indemnitazioa sorteko dute

2. Beizamako Udalak, zigorrak ezartzean, hutsegitearen larritasunaren eta ezarritako zigorraren arteko egokitasuna gorde beharko du, irizpide hauek kontuan hartuta:

- a. Nahita edo behin eta berriz egin izana.
- b. Eragindako kalteen izaera.
- c. Berrerortzea, urte beteko epean izaera bereko hutsegitea behin eta berriz egin izana.

3. Gainera, Beizamako Udalak isun hertsatzaileak ezarri ahal izango dizkio esleipendunari bere betebeharrak behin eta berriz betetzen ez baditu, beti ere alde zuzenetik jakinarazi bazaio eta adierazitako epeetan bete ez baditu. Isunaren eguneroko zenbatekoa ez da 500 euro baino handiagoa izango.

4. Baldintza-agiri hauetan aurreikusitako zigorren kopurua urtero eguneratuko da, Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) arabera.

5. Ezarritako zigorren zenbatekoak ezingo ditu inolaz ere gainditu SPKLaren 235. artikuluan zehaztutako mugak.

**14. BALDINTZA BEREZIAK**

**14.1 Establezimenduaren irekiera**

Ostatua irekita egon beharko da gutxienez eta ohiki:

- Taberna egunero ireki beharko du, udalbatzak erabakitako ordutegiaren barruan.
- Astean zehar lanegun batetan edo bi arratsaldetan ixteko eskubidea izango du, ixteko eguna inolaz ere ezin izango da ostiral, larunbat, igande, hileta, herri



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ospakizun edo mota honetakoak gertatzen den egunean gauzatu. Kasu honetan ixtea ospakizun edo gertaeraren aurreko edo hurrengo egunean egingo da.

- Urtean hamabost egunetan itxi ahal izango dute oporreatik, Gabonak, Aste Santua edo herriko jaietako egunetan ezik. 10 egun lehenago, asmo honen berri eman beharko zaio Beizamako Udalari.
- Gutxienez, zerbitzua 10 ordu egongo da irekita astean zehar eta asteburuetan 14 ordu.
- Edozein arrazoi dela medio zerbitzuak itxita egon behar badu, 10 egun lehenago asmo honen berri eman beharko zaio Beizamako Udalari.

#### 14.2. Langileria

Uneoro, zerbitzua egokiro ematea bermatzeko langile kopuru nahikoa izango du esleipendunak.

### 15. LEHENGORATZEA

15.1. Epea igaro izanagatik edo bestelako arrazoiengatik kontratuaren esleipena iraungi denean lurzoru, lanak, instalazioak eta tresnak Beizamako Udalaren jabetzakoak izatera itzuliko dira, eta kontratistak Itzulketa Aktan zehaztutako itzulgarriak ez diren ondasunak soilik hartu ahal izango ditu, kontratu honekin bat etorritz.

Edozelan ere, ez dira itzulgarri izango zerbitzuaren ustiaketa arrunterako beharrezkoak diren ondasunak, higiezinaren edo instalazioen atalak direlako nahiz horiek puskatu edo kaltetu gabe atera ezin direlako.

15.2. Emakida hartu izanaren Itzulketa Akta egingo du Udalak, emakidadunaren aurrean, eta gutxienez 10 eguneko epean jakinarazi beharko da. Akta horretan, itzultako ondasunen kontserbazio-egoera adieraziko da eta ageri dituzten kalteak zehaztuko dira.

Kontratatari egozteko moduko kalteak agertuz gero, dagokion espediente irekitzeko oinarritzat erabiliko da Akta hori. Espedientean zehaztuko dira emakidadunari eskatuko zaizkion eta ondasunek behar dituzten konponketalanak, eta behin betiko bermean kargatu ahal izango dira.

15.3. Itzulketa hartzeko egintza hilabete bateko epean gauzatuko da, emakida iraungi denetik hasita.

15.4. Behin betiko bermea 3 hilabeteko epean itzuli beharko da, emakida formalki jaso den datatik hasita.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Behin betiko bermea ez zaio kontratistari itzuliko, harik eta instalazioen egoera egiaztatu arte, goiko paragrafoetan adierazitakoak betetzeko. Hala dagokionean, kaltetutako ondasunak konpontzeari, egokitzeari eta behar bezala erretiratu ez direnak erosteari dagokion zenbatekoa aplikatuko du Administrazioak. Ezarritako arauen bidezko prozedurari jarraiki bermearekin estali ezin izan den zorraren zatia ere burutuko du.

Hala eta guztiz ere, bermea itzuli aurretik kontratistak frogatu beharko du esleipenaren amaieran ere bere langileen soldatak eta horiei dagozkien Gizarte Segurantzako kuotak behar bezala ordaindu dituela.

#### **16. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Sektore Publikoko Legeko 294 eta ondorengo artikuluetan ezarritako arrazoiengatik etengo dira kontratuak.

#### **17. USTIAKETA PROIEKTUA.**

Esleipendunak bere gain eta kontura kudeatuko ditu ustiaketari dagozkion zerbitzuak. Administrazioak ez du inolaz ere esleipendunak hirugarrengoeekin hartutako betebeharren ardurarik izango, ezta eragin ditzakeen kalte-galeren ardurarik ere.

#### **18. KONTRATATZAILEAREN INSPEKZIO ESKUBIDEA**

Beizamako Udalak, kontrola ditzake lokalaren funtzionamendua, barruko ordenua, ixteko eta irekitzeko orduak, eta taberna, sukalde eta beste lokal eta zerbitzuetako garbitasun eta osasun baldintzak. Horrela, bada, Zahar Etxeko leku eta instalazio guztietara sar daiteke.

Inolako akatsik ikusiz gero, behar den akta egingo da eta ohartarazpen idatzia sortuko du honek lehendabiziko aldian; bigarrenen ordea, kontratua etenaraziko da eta batere eskubiderik gabe alde egin beharko du emakidadunak lokaletik, bertako tresna guztiak Alkatetzaren esku utzirik, errekerimendua egin ondoko hiru egunen barruan.

Baldin lokaletik alde egingo ez balu, sor dakioken erantzukizun penalaz gain, Beizamako Udalak dituen edozein organoren bitartez behar diren neurri bortxatzaile eta premiazaileak erabili ahal izango dira bertatik joan dadin.

#### **19. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**



BEIZAMA KO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 19.1. Emakidak sor lezakeen gastu guztiak lehiaketan garaile gertatzen den pertsonaren kontura izango dira. Gastu hauen barne espreski Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lehiaketa iragarritzuz plazaratu daitezkeen iragarkiei dagozkionak sartzen direlarik.
- 19.2. Zerbitzu iharduera egikaritzeko indarrean dauden eta aplikagarri diren lege betebeharrak guztiak beteko ditu, besteak beste eta zerrenda gisa honakook: Langilegoaren Estatutuak, Gizarte Segurantzaren Legea, iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak arautzen dituen erregelamenduan, lanean aritzeko osasun eta segurtasun arauak, eta ihardueraren esparruari egokitzen zaion hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak eta abar.
- 19.3. Udalbatzarrak esleipen erabakian ezarritako egun eta orduetan taberna-jatetxe eta herri telefonoko zerbitzua eskeintzea. Erabaki honetan baita oporrak egiteko epeak finkatuko dira ere. Atal honetan ezarri den betebeharrak hau nabarmenki edo maiz urratzeak, kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabeko emakidaren bukatzea ekar lezake.
- 19.4. Jendaurrean, kontratazio organuarekin adostutako, indarrean dauden prezioen zerrenda edukiko du. Bertan azaltzen diren gai arruntak normalki egoitzan salgai izan beharko dituelarik.
- 19.5. Garai guztietan eta bezeroen esku erreklamazio liburua eduki beharko du, edozein erreklamaziorik gertatuz gero, gehienezko 48 orduetan udalaren aurrean aurkeztu beharko duelarik liburua.
- 19.6. Bere kontura eta beharko balu, nagusi modura, zerbitzua atenditzeko beharrezkoa den pertsona kontratatatzeko obligazioa hartzen du, honen ondorioz gizarte segurantzaren kuotak, soldadak eta gainontzeko guztiak bere kontura izango dira, lan istripuak eta lanbide gaixotasunak barne. Beti ere, kontratatutako pertsonalak euskaraz aritzeko gaitasuna izan beharko duelarik.
- 19.7. Zuzenean ustiatu beharko du ostatua (eta, bere kasuan, aterpetxea), inolaz ere beste bati uztea, alokatzea, azpialokatzea edo traspasatzea baimenduko zaionik, ez zuzenean ez zeharka.
- 19.8. Ezin izango du berak eginiko edozein motatako iragarkirik jarri udal egoitza honetan, ez eta kartelak edo argitarapenak, txanpon makinak eta joko makinak jartzea espreski debekatzen delarik. (udalak espreski onartutako iragarkiak salbu)



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

19.9. Iharduera egikaritzeagatik sor daitezken gastu guztiak, ur hornidura, argiteria, zaborbilketa eta estolderia barne, emakidatuaren kontura izango dira.

Aldi berean berak ordaindu beharko ditu, gogaikarritasuna sor lezaketan, usain txarrak edo keak ekiditzeagatik gerta daitezkeen beharrezko gastu guztiak.

19.10. Udal jabetzakoak diren eta emakidaren xede barruan dauden, instalakuntza, lanabes, tramankulu eta tresneri guztiak, bereak balitu bezala zaindu beharko ditu.

Zerrendatutako guztiak hartutako egoeran utzi beharko ditu, kasua balitz, bere kontura izango dira, hauen konponketak, eta erabat galduz gero birjarri egin beharko ditu.

Kasu berezietan udalbatzarrak ondasun hauen matxura edo aberia, erabilera desegokiak edo erabilera arruntak sorturiko desgasteaz gertatu den aztertu lezake. Kasu honetan eta bidezkoa egokituz gero, birjarpen betebeharrak askatzea erabaki ahal izango duelarik.

19.11. Emakidadunak, erabakiaren jakinerazpena jasotzen duen hurrengo egunetik zenbatzen hasitako hamar lanegunetako epean, Administrazioari eta hirugarrenei egiten dizkien kalteak indemnitzatzea. Horretarako behin-betiko esleipenetik hasita 15 eguneko epean esleipendunak hirugarrenei sorturiko kalteei aurre egiteko erantzukizun zibila babestuz 300.000.-€ko aseguru poliza kontratatu beharko du.

19.12. Instalakuntza guztien eguneroko garbiketa eta bertara sartzeko guneara ere Kontratistak egin beharko du.

19.13. Udalak izendatutako teknikoek eta zinegotziek edozein garaietan instalazioetara sartzeko eskubidea izango dute, egoitzen garbitasuna, tramankuluen eta elikagaien egoera aztertzearen.

19.14. Emakidatuak iharduera burutzean, egin ditzakeen edozein ekintzengatik, kaltetu eta hirugarren pertsonen aurrean erantzule izango da. Kasu batean ez ezik, hain zuzen, Administrazioak zuzenean eta berehala zer edo zer egitea aginduz gero, agindu hori betetzeagatik sor daitezken kalteak.

19.15. Emakida hasi aurretik lehiaketan hautatua izan den pertsonak, edo bere ordezkariak, eta Udaleko alkateak egoitzan dauden instalakuntza, tresneri, lanabes eta tramankulu guztiak aztertuko dituzte, eta ondasun horien inbentario orria sinatu egingo dute.



BEIZAMA KO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 19.16. Emakida epea bukatzean dagoenean berriro ere honelako ikuskapen bisita luzatuko da, emakidatuak udalari ondasun guzti hauek hartu zituen moduan eta erabiltzeko gai itzultzen dituela egiaztatuko delarik. Gai den tekniko batek, lanabesen egoera ikuskatu eta egoera ona egiaztatuz betetako ziurtagiria aurkeztu beharko dio lehiatzaileak Udalari, errebisio honen gastua bere kontura izango delarik. Ondasunik faltako balitz edo modu desegokian edo txarragoan baleude, udalari berak birjartzeko diru kopurua eman beharko dio. Zuzenean udalak utzitako berma exekutatzeko ahalmena izango duelarik.
- 19.17. Kontratatik urtero aurkeztuko dio udalari prezioen proposamena. Udalbatzar dagokio prezioei buruzko azkeneko onepena, beti ere kontratuaren oreka ekonomikoa kontutan hartu behar duelarik.
- 19.18. Etxean telefonorik ez duten herritarrei zuzendutako mezuak emateko betebeharra hartuko du. Era berean udalari zuzendutako mezu, idatzi eta dokumentu nahiz pakete guztiak jaso beharko ditu, udalaren bulegoak itxita daudenean.
- 19.19. Gas depositoaren egoera gainbegiratuko du, bere betetze maila, funtzionamenduan izan daitekeen edozein kalte, ezusteko, eta abar. Zerbait aipagarria somatuz gero, udalari berehala, honen berri emango dio.
- 19.20. Kontratatik, Beizama ko udalak antolaturiko ekintzetan parte hartuko du, hala eskatzen zaionean. Ekintza hauek lehentasuna izango dute, ea beti bermatuko da kontratuaren oreka ekonomikoa.
- 19.21. Emakidaren xedea betetzeko indarrean dauden lege, araudi eta agindu guztiak zuzentasunez beteko ditu.
- 19.22. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak nahiz bestelako legeek onartutako eskubideak.
- 19.23. Emakidaren oreka ekonomikoa mantentzeko eskubidea izango du kontratatik.
- 19.24. Ostaturia ustiatu eta dagokion onura ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du kontratatik.
- 19.25. Astean behin gutxienez Idazkaritza, Alkatearen gela, Pleno Aretoa, mediku-kontsulta gela, komunak, artxiboa, gizarte langilearen gela eta azken solairuan egokitutako gelak eta astean bitan gela hauetara doan eskailera garbitu behar ditu emakidadunak.




BEIZAMA KO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 19.26. Kontratastak ezingo du inolako oztoporik jarri Beizamako udalak, edo berak delegaturiko hirugarrenak sustaturiko lanak gauzatzeko, beti ere lan horien xedea interes publikokoa bada.
- 19.27. Kontratuaren exekuzioan hirugarrenei sorturiko kalteen erantzukizuna kontratistarena izango da. Horretarako, dagokion erantzukizun zibileko aseguru-poliza hitzartuko du, 300.000 €-ko kopuruaz

Beizaman 2018eko maiatzaren 18an.

DILIGENTZIA.- Baldintza ekonomiko administratibo hauek, 2018eko maiatzaren 23ko Osoko Bilkuran onartuak izan zirela ziurtatzeko.



Udal Idazkaria

Aña Larrarte Kerajeta